

# kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Santustene

Antiguan baserri-etxe zahar bakarra gelditzen da zutik: *Santustene*. Etxe hau Matia kalearen hegoaldean dago, gaur Aizkorri kalea deiturikoaren erdialdean, maldan. Aipatu kale honek Donostiatik Zubieta eta Usurbila zihoan antzinako bide zaharraren trazadura jarraitzen du leku honetan. Era berean, galtzara honek zatitzen zituen Ibaeta eta Lugaritz auzo zaharra. Txillardegik, «Antigua 1900» bere liburu politean dio etxe hau izan zela auzoko zaharren zaharrena eta ospetsuena. *Santustene* Ibaeta auzoko jauretze bat izan zen, landa etxe bat. Bere nagusiak Madrilen bizi ziren negu partean eta *Santustenera* etortzen ziren beti udan. Gaur zutik ikusten dugun etxea baserriarren etxea da; jauretzeko atezai-



Santustene eta ez «Sansustene» etxea Usurbilerako galtzara zaharraren ondoan.



Santustene baserriaren horma zaharrak.

nek erabiltzen zuten bere bizileku bezala eta aldi berean baserriarrak ere baziren. Bertako bizilagunek ikuilua zuten eta esnea banatzen zuten auzotarren artean. Jauretzea galdu zen eta bere lurretan Montpellier ikastetxea egin zen. Atezainaren etxeak, berriz, zutik jarraitu zuen eta bertan «Peña taurina» deituriko elkarteak bere soziedadea sortu zuen (gaur «SCR Sansustene» izena du). *Santustene* deitu izan da beti etxe hau eta honela entzun izan diet nik ere sortzez bertako diren adinako euskaldun guztiei. *Santustene* 1862. urteko Donostiako etxe zerrendetan agertzen da eta berdin Gipuzkoako 1836. urtekoetan. «Sansustene» mende hasierako deitura aldaketa dugu ziur aski, gaztelar hizkuntzako jendeek ezarria. *Santustene* lurretan etxe bizitza berriak daude proiektuan. Honela betirako galduko da laister gure aspaldiko etxe zaharra.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

## KULTUR UDAL PATRONATUAREN ESKAINTZA

### ANTZERKIA DANZA

**POLTSIKO ANTZERKIA**  
V. JAIALDIA  
Kultur etxeetan

Maiatzak 2-3-4 (ikus egitaraua)

FUNDICIONES TEATRALES C2

*Los domingos matan más hombres que las bombas*

ANTZOKI ZAHARRA

Maiatzak 9-10 20:00etan



**MAIATZA DANTZAN**

S.O.A.P Dance Theater of Frankfurt

*Object constant*

Maiatzak 4-5 20:00etan

COMPañIA VICENTE SAEZ

*Regina mater*

Maiatzak 11 20:00etan

METROS-RAMON OLLER

*Duérmete ya*

Maiatzak 12 20:00etan



MUSIKA

ZINEA

**PHIL CUNNINGHAM**

LUGARITZ KULTUR ETXEA  
Maiatzak 9 20:00etan

**LEGALIZE IT**

CASARES KULTUR ETXEA  
Maiatzak 16 20:00etan

**PORCO ROSSO**

*Haur zinea*

LUGARITZ KULTUR ETXEA  
Maiatzak 11, 17:00etan